

Txitxar txiroak



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

Dena ongi doa. Nola izan liteke bes-tela opor garaian, gora eta behe-ra, ase arte ibili ondoan? Zeregin zehatzik gabe alderrai ibili gara, gogoa ematen zigun leku eta jendeen artean. Gustukoa baizik ez dugu egin, ez-atsegina zena ahanzi eta baztertu, jainko tipiak bagina bezala, eta horrela iraunen genuke gogotik, geroan ere, uda eta opor-rak bukatu ondoan.

Autoko berinak zabalik, etxerako bidean goaz jada, ileak airean harroturik. Goiza argitzen hasi da, eta Provence-ko mendixketako harriek urre kolorekoak dirudite. Larretan gaindi, usain gozoak hedatzen dira: erromeroarena, izpili-kuarena, salbia basatiarena. Haize ari-nak, xuxurla gozoan, olibondoak eta izei luzeak dantzan jartzen ditu. Kanpoan, bide saihetsean, mahastiak luzatzen dira, errenkadaz errenkada. Geldituko bagina, txitxarrak entzunen genituzke engoitik. Eguzkiaren beroa oraindik leuna bada ere, lehen txitxar bat hasiko litzateke, ba-karrik, *tzirr-tzirr*, eta gero beste bat, eta beste bat, *tzirr, tzirr, tzirr* eta bat-batean giroa gortuko lukete, *tzarr-tzarr-tzarr...* Baina ez gara geldituko, etxerako bidean baikara, lehenbailehen heltzekotan, han berriz gozatzeko, lasaitasuna, etxea, eta...

Eta, autoko alarma batek jo du... Tiuta bat-batekoa eta zorrotza izan da, gure baitako irribarrea urratu duena. Badakigu, laster, ez dugula aitzina egiten ahal-ko, autoa ikaran ari baita jada, kolpeka



MAIDER LETURIAGA

aitzina eginez. Eta azkenean, autoa gel-ditu da, eta berekin batera mundua: ez da gehiago txitxarren dardararik, ez pinu-diaren xuxurlarik, ez mahastien lerrorik eta olibondoen dantza gozorik. Paisaia ederra hortxe da oraino, ez gara haren parte dagoeneko.

Eta jainkoak bezala bizi ginen unetik landa, hain laster, zein gauza gutxi garen orain, autobide bazterrean, kamioien burrunba astunen artean, txitxar txiroak hesi metalikoen giblean. Telefonoari deika hasi gara: segurantza, laguntza, paperak, hitz teknikoak. Hitz horien artean desegin da zoriona. Bai, garabia gure bila etorriko da. Oraintxe. Ordua ez dakigu zehazki: laster, edo berantago, dena da posible. Zaila zaigu segurtamenik ukaitea, motorra itzali denetik, ez baikara deus bide hegian, besteen meneko panpi-nak, besterik ez. Garabi, konpontzaile eta aseguruaren esku egonen gara, noizbait, eta badakigu ez dugula berehalakoan nahi duguna egiten ahal-ko.

Azkenean, bai, heldu da kamioia, eta hartan, gizon bat, bibote lodikoa, eguz-ki betaurrekoak soinean. Gu salbatzaile

baten esperoan egon gara; hark, lagun on baten garajera eramatea proposatu digu, ez baita erraza izanen, dioenez, eskuak gerrian kokaturik, begirada zuzen eta du-darik gabekoarekin. Baiezkoa eman dio-gu iradokizunari –zer erantzun bestela–, autobidetik lehenbailehen ateratzeko as-moz. Garajea izanen da ondoko helmuga: ez hondartza, ez mendia, ez postaletako irudia, baizik eta burdinaren usaina, olio zaharra lurrean, eta mekanikariaren esku beltzak. Eta leku honetan ere, gauza gu-txi izanen gara, azalduak izanen zaizkigun aberien ezjakin hutsak, eskainiak izanen zaizkigun konponbideen sinestun han-diak. Eta zorionekoak baikara, dena ongi aterako zaigu: bizkitartean, hiru egune-ko epean eta hilabete sari baten heina ordaindurik. Oporretan gastatzeko ge-nuen aurrekontua bikoiztuko du aferak; lanerako gogorik ez bagenuen ere, gure abenturek horretaratu gaituzte.

Eta hor konturatzen gara: bai, bizi-tzak badu ironia, txitxarren kantuari uko eginarazteko ez da behar ekaitzik edo uholderik, nahikoa baita auto baten alarma xaloa. ●